

13. Zkia

2005eko ekaina

JAIALDIA MARTXOAN

Recaudando fondos para Palenque

Aurten beranduago, baina era berean gogotsu eta astitsuago prestatu eta ospatu dogu Palenqueren aldeko jaialdia.

Martxoaren 18a egun handia izan zan, ikastolako guztiok artista bihurtuz euskal abesti aukeraketa zabala eskeini geuntson alkarri. Goizean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleok Polikiroldegia alaitasun eta txalo txaplada bete genduan.

Arratsaldez, Bigarren Hezkuntzako txanda izan zan, koreografiak eta dantzak eginez.

*Aipatzekoa da egun horretako gonbidatu berezia **Benja Respaldiza** izan genduala, berau da Palenqueko Ntra. Sra. de Fatima eskola txikiko bultzatzaileetarikoa bat.*

Este año algo más tarde, y por ello con más tiempo, hemos preparado con ilusión el festival pro Palenque.

El 18 de marzo fue un gran día, nos convertimos en artistas y nos regalamos mutuamente un amplio repertorio del cantoral euskaldun. Por la mañana, el alumnado y profesorado de Infantil y Primaria llenamos el Polideportivo de alegría y aplausos. Por la tarde, fue el turno de Secundaria, quienes compusieron coreografías para la ocasión.

Durante toda la jornada contamos con la presencia de un invitado muy especial, Benjamín Respaldiza. Él es uno de los coordinadores del Proyecto de colaboración que trabaja en Ecuador.



Jaialdi honek taldean jokatu ezker indartsuak garelara konturatzeo aukera paregabea emon euskun eta Palenqueko gure lagunentzat 524,58 € batzekoa.

ESKERRIK ASKO GUZTIO!!

Esta experiencia nos ayudó a reconocer la energía que generamos cuando actuamos en grupo. Además, pudimos recoger 524,58 € para este proyecto.

Eskerrik asko guztio!!

SUMARIO

- ✚ JAIALDIA MARTXOAN
Recaudando fondos para Palenque
- ✚ MENINGITIS-EN AURKA
Vacunación contra la meningitis
- ✚ ESLOBENIARRAK BEGOÑAZPIKO FAMILIETAN
Eslovenos-as en familias de Begoñazpi
- ✚ AITA SANTUAREN ALDEKO OTOITZA
Oración por Juan Pablo II
- ✚ TXISMEAK
- ✚ SARIAK
- ✚ UMOREA
- ✚ IZADI TXOKOA
Alumnos-as de Primaria aprenden a cuidar el Medio Ambiente
- ✚ SENDOTZAK
Ex alumnos-as de Begoñazpi se confirman
- ✚ SMART BOARD
La pizarra Interactiva
- ✚ BIZKAIA IRRATIAN
1º de Bachillerato en la radio

MENINGITISEN AURKA

Vacunación contra la meningitis

Eusko Jaurilaritzak, 2005eko urtarrilaren 10etik aurrera C meningitisaren aurkako txertaketa- kanpaina jarri eban martxan. Kanpaina hau 11 urtetik 20 urtera bitartean, biak barne, dagozan pertsona guztxi zuzenduta dago. Hori dala eta, Ikastolara otsailaren 9, 10 eta 11n etorri ziran, DBH eta Batxilergoko ikasleei txertoa jarri. Jakina, txertoa ikaslearen ardura dauan pertsonari(aita, ama...) baimena eskatu ondoren jarri zan. Baina, zer da meningitisa? "Meningokoko" izeneko baktería batek sortzen dauan eta osasunarentzat ondorio larriak izan daitezkan gaixotasuna. Ez da gaitz makala! Beraz, hobe aurrezaintzea, ez?



El Gobierno Vasco puso en marcha una campaña de vacunación contra la meningitis C a partir del 10 de enero de 2005. La campaña va dirigida a jóvenes y adolescentes entra 11 y 20 años, ambos inclusive. En la Ikastola fueron vacunados durante los días 9, 10 y 11 de febrero los alumnos de ESO y Bachilleratos, tras haber pedido la correspondiente autorización a los padres o tutores. Pero, ¿qué es la meningitis? Una enfermedad que puede causar consecuencias negativas producidas por la bacteria " meningococo".

ESLOBENIARRAK BEGOÑAZPIKO FAMILIETAN

Eslovenos-as en familias de Begoñazpi

Aurten, Comenius 1.2. europear proiektuaren barruan, alkarraldaketa egin da Begoñazpiko eta Ljubljana-ko Maksa Pejarca izeneko ikastetxe eslobeniarreko ikasleen artean. Hori dala eta, 19 eslobeniar ikasle Begoñazpiko DBH 2 eta 3ko familien etxetan egon dira.

Ikasle taldea eta bi irakasle, Bilbon egon dira urtarrilaren 17tik 30era. Goizez, Euskadiko lekurik adierazgarrienak ikusi ebezan: Gernika, Donostia, Bilbo, Gorniz, Getxo... eta Proiektu arduradunek antolatutako hainbat ekintza kultural eta ludiko egin dabez. Klase orduak amaitu ostean eta asteburuetan, alkarraldaketan parte hartzen daben familien bizimoduetan murgildu dira.



Ikasturtean zehar landu dan gaia "Arteak bidaiatzen dau eta ez dau mugarik ez sexurik bereizten" izan da. Horretarako, Bilboko Arte Ederretako Museoko arduradunagaz bat, Museoko sei irudi aukeratu dira. Ikasleek klasean landu eta aztertu dabez irudiak eta e-mail bidez, obren deskribapenak bialdu deutsiez eslobeniar ikasleei. Azken honeek, irudiak marraztu dabez, jasotako datuetan bakarrik oinarrituz. Horrela, Bilbon egozala, ekintzarik garrantzitsuena Museora bisita izan zan eta han, Begoñazpiko ikasleek ikasitako obren aurkezpena egin eben, ingelesez. Eslobeniarrek obrak ikusi ahal izan dabez eta orijinalen eta euren irudien artean antzekotasun handiak izan dirala ikusi ahal izan dogu guztiok.



Era berean, eslobeniar ikasleek Ikastolako klaseetan parte hartu ahal izan dabe, Begoñazpiko ikasle bakoitzak bere alkarraldaketa laguna klasera eroanez. Honela, Proiektuaren alkarbizitza eta murgiltze helburua bete egin da.

Dentro del Proyecto Europeo Comenius 1.2, este año se ha realizado un intercambio entre alumnos-as de Begoñazpi, y de un centro educativo esloveno, Maksa Pejarca, en Ljubljana. 19 alumnos-as eslovenos-as, de 2º y 3º de ESO han convivido con familias de la Ikastola.



El grupo, junto con dos profesoras, han estado en Bilbao del 17 al 30 de enero. Por las mañanas, han conocido los lugares más emblemáticos de Euskadi: Gernika, Donostia, Bilbao, Gorniz, Getxo..., llevando a cabo actividades culturales y lúdicas, organizadas por las responsables del Proyecto. Después de las clases, y durante los fines de semana, han convivido con las familias participantes en el intercambio, integrándose en sus formas de vida.



El tema que se ha trabajado durante el curso ha sido: "El arte viaja y no conoce fronteras y sexo". Para tratarlo, se han seleccionado seis cuadros de la exposición del Museo de Bellas Artes de Bilbao. Los alumnos-as los han analizado en clase, y a través de e-mail, han enviado las descripciones de dichas obras a los alumnos-as eslovenos. Éstos han reproducido las obras, basándose en los datos recibidos. Así, el día más importante ha sido la visita al Museo, donde nuestros alumnos-as han expuesto, en inglés, las obras estudiadas. Nuestros visitantes pudieron ver "in situ" las obras, y todos hemos podido observar que ha habido un gran parecido entre las pinturas originales y sus reproducciones.

También han podido asistir y participar en las clases que se imparten en la Ikastola, acompañado cada alumno-a de Begoñazpi por su pareja de intercambio. De esta forma, se ha completado el objetivo de convivencia e integración que persigue este Proyecto.

AITA SANTUAREN ALDEKO OTOITZA

Oración por Juan Pablo II

Apirilaren 7an, Begoñazpi Ikastolako ikasle, irakasle eta egindako gonbidapenari erantzun eutsen hainbat senide, Begoñako Basilikan, Aita Santuaren alde otoitz egiteko, Meza baten alkartu ginan.

Ospakizunean zehar, Joan Paulo II.ak aldarrikatu eta jorratutako jokabide batzuk gogoratu ziran. Alde batetik, barkatzeko eta barkamena eskatzeko gaitasuna; bestetik, bakea eta justiziaren alde lan egiteko adorea.

Eta ospakizunaren amaieran, han batutakoek laguntza eskatu geuntsen Jaunari, aurrerantzean ere, Eleizaren bidea Barri Onean oinarrituta egon daiten.



El pasado 7 de abril, alumnos/as, profesores/as y un grupo de familiares que respondieron a la invitación, nos reunimos en una eucaristía en la basílica de Begoña, para rezar por el Papa Juan Pablo II.

Durante la celebración, se recordaron algunas actitudes y valores subrayados por el Papa. Así, por una lado, la capacidad de perdonar y pedir perdón. Por otro, el ánimo en favor del trabajo por la paz y la justicia.

Al final de la misa, los reunidos pedimos a Dios su ayuda para que el caminar de la Iglesia esté siempre enraizado en el Evangelio.



TXISMEAK

- Leire Valenciano, LMHko tutorea, martxoaren 5ean ezkondu da. Zorionak, andereño!
- Leire Epalzak, Ikastolako Administrazio Arduradunak, seme bat izan dau otsailaren 24an. Paul izena dauka. Zorionak, Leire!



- Leire Valenciano, tutora de Educación Primaria, se ha casado el día cinco de marzo. Enhorabuena, Leire!
- Leire Epalza, Responsable de Administración de la Ikastola, ha tenido su primer hijo el 24 de febrero. Se llama Paul. ¡Felicidades, Leire!

SARIAK

Premios

2. eta 3. zikloko 9 ikasle Otxarkoagako Ipuin Leihaketako irabazleak izan dira eta euren ipuinak liburuxka baten publikatu dabez. Leihaketaren irabazleak apirilaren 17an izandatu dabez.

9 alumnos del 2º y 3er ciclo de primaria han sido premiados en el Concurso de Cuentos de Otxarkoaga. Los premios se han repartido el 17 de Abril y sus cuentos han sido publicados en un pequeño libro.

UMOREA



IZADI TXOKOA

Alumnos-as de Primaria aprenden a cuidar el Medio Ambiente

Kaixo, lagunok! Orain dala denbora gitxi ezagutu gara, ikasgelatan, pasabideetan eta agertu garen beste hainbat lekutan. Badakizue gure izenak Txorrot eta Argi direla eta Ikastolan izadiaren alde egindako ekin-tzen barri emotera gatortzuez.

Gu, hormatan jarri gara zuoi gauza bat gogoratzeko, hau da, kontuz ura eta argiaz, ondo erabiltzen ikasi behar doguz eta.

Azken hilabete honetan ipuin eta marrazki lehiaketa bat antolatu dogu, eta egia esan ipuinak irakurri eta gero pozik gagoz, zuon kezkek ikusita.

Hola amigos-as, hace poco tiempo que nos hemos conocido en los pasillos, en las clases y en otros sitios donde hemos aparecido. Sabéis que nuestros nombres son Txorrot y Argi, y que os vamos a informar de las actividades a favor del medio ambiente que se organicen en la Ikastola.

Estamos en las paredes para recordaros que tenemos que cuidar la luz y el agua.

Este último mes hemos organizado un concurso de cuentos y dibujos, y después de leer los cuentos estamos contentos, porque hemos visto que la naturaleza os preocupa.



Badakigu jolastoki eta Ikastola inguruan koloreetako zabor hontziak jarri dirala, orain badakizue, hondakin bakoitza bere lekura!

Ipuin kontalariagaz ere egon zarie eta ipuinak gustatu jatzuezala entzun dogu.

Batzuk Baratze joan zarie, beste batzuk Lapurriketa, Lurraska, Angosto edo Bidarrienera, guztiok egun batzuk natura hurbilgotik bizitzera joango gara, hau bai sortea!

Egia esan, hainbat gauza egin da, baina oraindik ez dira ekintzak amaitu, beraz adi egon. Ipuin eta marrazki lehiaketen sari banaketa Zuhaitz arrasti egunean Ikastolan ospatuko dogu.

Laster arte. Argi eta Txorrot.

Nos hemos enterado de que os han instalado papeleras de colores para poder depositar cada residuo en el sitio que le corresponde.

El cuento de cuentos se ha mostrado contento con vuestra participación.

Algunos-as habéis ido a Baratzte, otros-as a Lapurriketa, Lurraska, Angosto o Bidarri; todos-as iremos a pasar unos días cerca de la naturaleza, ¡qué suerte la nuestra!

Este curso se han hecho muchas cosas, pero todavía quedan cosas por hacer, así que estate atento ya que la entrega de premios se celebrará el día del árbol.

Hasta pronto. Argi y Txorrot.

SENDOTZAK

Ex alumnos-as de Begoñazpi se confirman

Joan dan apirilaren 16an, Begoñako Basilikan, zortzi gaztek Sendotza Sakramentua hartu eben. Eurerariko zazpi Ikastolako ikasle ohiak dira.

Ikastola osotzen dogunok gure poza adierazi nahi deutsegu kristau bizitzaren barruan emon daben urrats garrantzitsua gaitik.

ZORIONAK Gorka, Olaia, Idoia, Gontzal, Joseba, Iruñe eta Itziar!!!

El pasado 16 de abril, en la Basílica de Begoña, un grupo de ocho jóvenes recibió el Sacramento de la Confirmación. De los ocho, siete han sido alumnos-as de la Ikastola.

Las personas que formamos esta Ikastola queremos expresarles nuestra alegría por el importante paso que han dado en su vida cristiana.

ZORIONAK Gorka, Olaia, Idoia, Gontzal, Joseba, Iruñe eta Itziar!!!

Larunbatean aberastu zan

sakramentuen baratza;

albistea hartu genduanean

poztu egin jakun bihotza.

Garrantzitsu da zuen fedean

emon dozuen urratsa;

heldutasuna sendiarengan

eta heziketan datza.

Begoñazpi oso harro dago

hartzeagaitik SENDOTZA.



BIZKAIA IRRATIAN

1º de Bachillerato en la radio

Martxoaren 11n batxilergo lehen mailako bederatzi ikaslek Bizkaia Irratiko "Endorfinaz Blai" saioan hartu genduan parte. "Endorfinaz Blai" zenbait ikastetxetako ikasleren arteko lehiaketa da. Bertan hainbat gairi buruzko galderari erantzun behar jako eta ondo erantzundako galdera bakoitzak puntuak emoten deutsoz taldeari.

Irratira heltzean Javik, "Endorfinaz Blai" saioko aurkezleak, beste irratsaio bat aurkezten egoalarik, parte hartzen eben entzuleei laguntzeko eskatu euskun. Irratsaio ha amaitu bezain pronto, gure txanda iritsi zan.

Irratsaioko galdetegia hainbat ataletan banaturik egoan, eta ikasleak gaien arabera banandu ebezan. Galderak uste baino askoz errezeroak izan ziran, eta saioa bukatzean egoala aurkezleak batenbatek bertso bat botatzeko proposamena egin eban; Aitor Medrano izan zan ausartu zan bakarra.

Jasandako urduritasuna alde batera itziz oso ekintza aberasgarria iruditu jakun.



SMART BOARD

La pizarra Interactiva

Ordenagailuko edozein programa ordenagailuko pantaila baten zein ikumen arbelan isladatuta aurkitu daiteke. Non dago berrikuntza? Ukimen arbelan egiten dan edozein aldaketa (bai bolígrafo berezi batez bai atzamarraz), ordenagailuan zuzenean egindako aldaketa izango balitz modura gorde daiteke.

Klaseak dinamikoagoak izaten lagunduko dauan tresna izatea espero dogu.



Todo programa de ordenador puede ver la luz en la pantalla del ordenador o en la pizarra interactiva. ¿Cuál es la novedad? que toda modificación realizada en la pizarra (bien con un bolígrafo especial, bien con un "simple dedo") puede quedar guardado como corrección o cambio realizado directamente en el propio ordenador.

Esperamos que sea un instrumento que ayude a amenizar las clases por el dinamismo que ofrece.



El pasado 11 de marzo, nueve alumnos-as del primer curso de bachillerato fuimos al programa "Endorfinaz blai". "Endorfinaz blai" es un concurso realizado entre grupos de alumnos-as de distintas ikastolas. En el concurso se deben responder correctamente a las preguntas y cada acierto otorga puntos al grupo.

Cuando llegamos a la emisora, Javi, el presentador del programa, estaba presentando otro concurso y solicitó nuestra colaboración para ayudar a los oyentes que participaban. Una vez acabado ese programa llegó nuestro turno.

Las preguntas del concurso estaban divididas en varios grupos y en consecuencia nosotros también nos dividimos para contestarlas. Nos llevamos una grata sorpresa ya que las preguntas eran más fáciles de lo que esperábamos. Al final, el presentador propuso que alguno de nosotros-as echara un bertsu y Aitor Medrano fue el único que se animó.

Pasamos un buen rato aquella tarde y fue una bonita experiencia.